



Emozioak eta barne-elkarrizketa ikasgela: nola eragiten digute?



Eka. 26 - Eka. 27 2023

Kod. H04-23

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2023

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Eka. 26 - Eka. 27 2023

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Emozioek funtsezko zeregina dute ikaskuntza-testuinguruetan. Ikasleek zein irakasleek horiek identifikatzea eta era eraginkorrean erregulatzea are beharrezkoago bilakatzen da, une soziohistoriko aldakor eta iragarrezin honetan. Hori horrela, ikastaroaren helburu nagusia adimen emozionalean sakontzea da. Horretarako, batetik, emozioei loturiko teoriak jorratuko dira, horiek ikasgelan izan dezaketen eraginaz ohartarazteko. Bestetik, emozioen identifikazioan eta kudeaketan giltzarri den fenomeno ere landuko da, barne-elkarrizketa (*self-talk*), hain zuzen ere. Bizitzan ez ezik, emozioek eta *self-talk*-ak ikasgelan duten presentzia ikusaraziko da, horien inguruan lanketarako ideiak ere eskainiaz.

Helburuak

Emozioen identifikazioa lantzea eta ikasgelan duten presentziari buruz hausnartzea.

Emozioen sailkapen nagusietara hurbiltzea.

Emozioei buruz dugun kontzientziaz ohartaraztea.

Emozioak EAEko orain arteko esparru curricularrean kokatzea.

Adimen emozionala erregulatzeko eta kudeatzeko barne elkarrizketa fenomenora hurbiltzea.

Barne elkarrizketak gure bizitzan daukan inpaktuaz ohartaraztea.

Barne elkarrizketak testuinguru akademikoan izan dezakeen erabilgarritasuna aztertzea.

Lankidetzak



Programa

2023-06-26

08:45 - 09:00	Erregistroa
09:00 - 09:45	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Nerea Larruzea Urkixo ISEI/IVEI eta UPV/EHU - Teknikari espezialista eta UPV/EHUko irakaslea Amaia de la Fuente Gaztañaga UPV/EHU - UPV/EHUko irakaslea
09:45 - 10:15	“Taldeak martxan jarritz: mini-erronkaren aurkezpena” Amaia de la Fuente Gaztañaga ISEI/IVEI eta UPV/EHU - Teknikari espezialista eta UPV/EHUko irakaslea Nerea Larruzea Urkixo UPV/EHU - UPV/EHUko irakaslea
10:15 - 11:45	“Zer dira emozioak? Nola eragiten digute? Hurbilketa kontzeptuala” Amaia de la Fuente Gaztañaga ISEI/IVEI eta UPV/EHU - Teknikari espezialista eta UPV/EHUko irakaslea Nerea Larruzea Urkixo UPV/EHU - UPV/EHUko irakaslea
11:45 - 12:00	Atsedena
12:00 - 13:00	“Adimen emozionala esparru kurrikularrean kokatuz: nondik gatoz eta nora goaz?” Amaia de la Fuente Gaztañaga ISEI/IVEI eta UPV/EHU - Teknikari espezialista eta UPV/EHUko irakaslea Nerea Larruzea Urkixo UPV/EHU - UPV/EHUko irakaslea
13:00 - 14:00	Mini-erronkara so! Hausnarketarako tartea
14:00 - 14:30	Sintesia

2023-06-27

09:00 - 09:30	Bigarren egunaren aurkezpena
09:30 - 10:30	“Barne-elkarrizketa, emozioen erregulaziorako giltza” Amaia de la Fuente Gaztañaga ISEI/IVEI eta UPV/EHU - Teknikari espezialista eta UPV/EHUko irakaslea Nerea Larruzea Urkixo UPV/EHU - UPV/EHUko irakaslea
10:30 - 11:30	“Barne-elkarrizketa ikasgelan” Nerea Larruzea Urkixo ISEI/IVEI eta UPV/EHU - Teknikari espezialista eta UPV/EHUko irakaslea Amaia de la Fuente Gaztañaga UPV/EHU - UPV/EHUko irakaslea
11:30 - 12:00	Atsedena
12:00 - 13:00	Elkarlanerako tartea: Landutakoa mini-erronkan txertatuz

13:00 - 14:00

Partaideen hitza: mini-erronken aurkezpen laburrak

14:00 - 14:30

Ikastaroaren balorazioa eta itxiera

Zuzendaritza



Nerea Larruzea Urkixo

Euskal Herriko Unibertsitatea

Psikodidaktika: Hezkuntzaren Psikologia eta Didaktika Espezifikoetan Doktorea, Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Egun, unibertsitate bereko Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologiako Departamentuko irakaslea da, eta baita Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundean (ISEI-IVEI) teknikaria ere. Bere ikerketa-ildoak autoelkarrizketan, erregulazio emozionalean eta ikaskuntza autoerregulatuan oinarritzen dira, baita generoak aldagai horietan duen eraginean ere. Arlo horretako formakuntzak diseinatu eta aurrera eraman ditu, hezkuntza-etapa desberdinetako irakasleei zuzenduak izan direlarik.

Irakasleak



Amaia de la Fuente Gaztañaga

Euskal Herriko Unibertsitatea

Psikodidaktika: Hezkuntzaren psikologia eta Didaktika Espezifikoetan doktorea, eta Gizarte Hezkuntzan graduatua Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Gaur egun, irakasle da unibertsitate bereko Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologiako Departamentuan, Lehen Hezkuntzako eta Gizarte Hezkuntzako Graduan eskolak ematen dituelarik. Batez ere trebetasun sozioemozionalekin eta horiek ikasleen osasunean duten eraginarekin lotutako artikulu zientifikoak argitaratu ditu, generoak horietan duen eraginean ere zentratu izan da. Nazioarteko eta nazioko kongresuetan ere parte hartu du. Lanean ari diren irakasleentzako hainbat prestakuntza-ikastaro diseinatu ditu, eskola-testuinguruan trebetasun sozioemozionalak lantzeko.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2023-05-31 ARTE	2023-06-26 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	59,00 EUR
Orokorra	-	84,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	71,00 EUR
Matrikula exentzioa	-	59,00 EUR
Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza	-	71,00 EUR
Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernua	-	71,00 EUR
Elkar	-	71,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	71,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa